



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2018/02/02

Obamaren Barne Ministro ohiam Batzarretxea bisitau dau, Iberdrolako Nazinoarteko Aholkularitza Kontsejuko ordezkariakaz batera

Ken Salazar Obamaren Administrazioan Estatu Batuetako Barne Ministro izandakoak Gernikako Batzarretxea bisitau dau gaur, Iberdrolako Nazinoarteko Aholkularitza Kontsejuko ordezkariak lagunduta. Beste batzuen artean, honeek etorri dira: Jorio Dauster, Europar Batasunaren aurreko Brasilgo Enbaxadore ohia; Ramón de Miguel, Europar Batasuneko Estatu Idazkari ohia eta Espainiako Enbaxadore ohia Frantzian. Ana Loring emazteagaz etorri da; eta Rafael Orbegozo, Iberdrolako Presidentzia Aholkularia.

Batzarretxearen sarreran txistulari batek egin deutse ondo etorria, eta horren ostean arbola zaharrera joan dira, bertan argazki bat aterateko. Gero, txistuagaz jotako “Agur jaunak” entzun dabe. Gernikako Arbolen aurrean Beti Jai Alai taldeko dantzariak dantza bat eskini deusie, eta ostean egoitzako barrunbeak bisitau ditue.

Amaitzeko, konbidauek eta Presidenteak Ana Otaduiaren bulegoan bukatu dabe bisitea, Ohorezko Liburuan sinatuz. Bukatzean, Batzar Nagusietako Presidenteak Mendietaren koadruaren grabau bat oparitu deutse bisitariak, oroigarri moduan. Horrez gain, Rafael Orbegozok, haretx ostroak estanpauta dituan zapi bat emon deutso Ana Otaduiari.

Hegaldiak atzerapenak jasatearen ondorioz, Europar dagoen kontrako klimatologia dela eta, datorren orduetan helduko dira Bizkaiara Joschka Fischer, Alemaniako Errepublikako Federaleko Kanpo Gaietarako Ministro ohi eta Kantziler-orde ohi eta Alderdi Berdeko buru izandakoa, eta Ernesto Zedillo, Mexikoko Presidente ohia.

NOTA DE PRENSA

02/02/18

El ex Ministro de Obama visita la Casa de Juntas junto con representantes del Consejo Asesor Internacional de Iberdrola

Ken Salazar, ex Ministro del Interior de Estados Unidos en la Administración Obama, ha visitado esta mañana la Casa de Juntas de Gernika acompañado por representantes del Consejo Asesor Internacional de Iberdrola. Entre ellos se encontraban: Jorio Dauster ex Embajador de Brasil ante la Unión Europea; Ramón de Miguel, ex Secretario de Estado

de la Unión Europea y ex Embajador de España en Francia, acompañado de su esposa, Ana Loring; y Rafael Orbegozo, Asesor de Presidencia de Iberdrola.

A su entrada en la Casa de Juntas han sido recibidos por la Presidenta, mientras se escuchaban los sonos del Alkate Soinua o del Agur jaunak para después dirigirse al árbol viejo donde todos los asistentes se han sacado una foto; seguidamente han oído interpretar el “Agur jauna” a txistu. Tras pasar por el Árbol de Gernika, donde los dantzaris del Beti Jai Alai les han dedicado un baile, han dado comienzo al tour por las dependencias.

Finalmente tanto los invitados como la Presidenta han acabado la visita en el despacho de Ana Otadui para firmar en el Libro de Honor. Seguidamente la Presidenta de las Juntas ha obsequiado a los visitantes con un grabado del cuadro de Mendieta como recuerdo de la visita. Asimismo, Rafael Orbegozo, le ha hecho entrega a Ana Otadui de un pañuelo con un estampado de hojas de roble

Tras sufrir problemas de retrasos en sus vuelos por la climatología adversa en toda Europa, en las próximas horas llegarán a Bizkaia Joschka Fischer, ex Ministro de Asunto Exteriores y ex Vicecanciller de la República Federal, y antiguo líder del Partido Verde, y Ernesto Zedillo, ex Presidente de Mexico.